

ELAk premiazkotzat jotzen du zerga-arauak nabarmen aldatzea, bai eta iruzur fiskalaren aurkako neurriak hartzea ere. Aipaturiko aldaketak egiteko beharrianaren arrazoiak bi dira. Lehenengoa, gure sistema fiskala bidezkoagoa eta solidarioagoa izatea. Bigarrena, beharrezkoa da diru-bilketa handiagoa egitea, Europako batez bestekoarekiko ditugun defizitak berdintzearen (gizarte-babesa eta presio fiskala).

Deigarria da eskudun erakundeen geldotasuna (EAEn foru-aldundiena eta biltzar nagusiena). Oraingo testuinguruan —krisia eta diru-bilketaren gainbehera— sistema fiskal berarekin jarraitzeak edo oso aldaketa txikiak egiteak (2011n PFEZekoa bezalakoa) ondorioz dakarrena murrizketa-politika gehiago egin behar izatea da; eta horrek krisia areagotzen du, langabezia ugaltu eta gizarte-babesa ahuldu. Horren erantzukizun politikoa handia da. ELAren ustez, murrizketa-politikak onargarriak ez direla esatea eta, aldi berean, oraingo sistema fiskalari eustea ez da zentzuzkoa.

Rajoyren Gobernuak agerian utzi ditu EAEko erakundeak. lazko abenduan egin zuen, PFEZ aldatu zuenean; eta martxoaren 30ean berriz ere, sozietateen zerga igotzea onetsi duenean —hortik biltzen dena %32 igoko da (BPGaren %0,5)—. Egin behar zena baino gutxiago da; baina, hala ere, Gipuzkoan, Araban, Bizkaian edo Nafarroan egiten ari dena baino gehiago. Harrigarria eta ulertezina da, benetan.

Hori dela-eta, ELAk ezinbestekotzat jotzen du EAEko oraingo sistema fiskala nabarmen aldatzea. Horren haritik, zenbait proposamen ekarriko ditugu gogora, ELAk irailean foru-aldundiei egin zienak. Borondate politikoa baino ez da behar proposamenak gauzatzeko, hona hemen zein diren:

Iruzur fiskalaren aurkako borroka.

Soldatarenak ez diren errentetan iruzur fiskal itzela dago. Horri aurre egiteko behar diren neurriak, besteak beste, hauek dira:

Soldatarenak ez diren errenta guztiak ikuskatzea (PFEZ, Sozietateen Zerga eta BEZ), iruzurraren iraungipena baino lehen (hau da, kidego horren ikuskapen-maila igo behar da oraingo %1etik %20ra urtean).

Giza baliabideak ugaltu behar dira, ikuskapenak ugaltzen diren neurri berean.

Zergetan gutxiago ordaintzea ahalbidetzen duten legezko tresnak sakonki aztertu behar dira, eta gero indargabetu (zuzeneko zerga guztiak hartzen dira barne).

Iruzur fiskalaren inguruko azterlanak aldiro-aldiro egitea.

Sozietateen Zerga.

Sozietateen Zergari dagokionez ELAk haxe proposatzen du:

Sozietateen Zergaren tasa nominal bat ezartzea —%35—.

Kendura fiskalak dezente murriztea, zeren orain benetako tasa nekez iristen da nominalaren erdira.

Opor fiskalen egoera eta ondorioak jendaurrean argitzea (lortu zuten maila, zenbat berreskuratu den eta zenbat ez, isunen inguruko estrategia...) Berariazko gainkargu bat ezarri behar da zergan, jarri beharreko isunak ordaintzeko.

Parte hartze sozialerako tresnak.

Prozesu partehartzaile bidez taxutu behar da politika fiskala, eta sindikatuei ere parte hartzeko aukera eman behar zaie bide instituzionalizatuetatik.

Halaber, erreforma fiskalei ekin baino lehen kontsultatu behar zaio gizarteari.

Arlo fiskaleko legegintza Eusko Legebiltzarrean.

ELAren aburuz politika fiskalari buruzko oraingo erabaki-esparrua aldatu beharra dago. Foru-erakundeek Ekonomia Ituna eta Autonomia Estatutua aipatzen dituzte, arlo fiskaleko beren eskumena zaintzeko orduan. Baina politikak zeharo aldatzeko proposamenak egiten zaizkienean, orduan Zerga Koordinazioko Organora jo beharra hartzen dute aitzakiatzat sarritan proposamen horiek baztertu nahian.

Gure iritziz, Zerga Koordinazioko Organoa —Eusko Jaurlaritzaren eta foru-aldundien artean erdi bana osatua— erabat opakoa da, ez dio eskaintzen gizarteari ez argibiderik, ez eztabaidarik. Praktikan, alde bateko betoa nahikoa da fiskalitatea justizia sozialaren ikuspegitik aztertzeko aukerari uko egiteko. Gaur egun arte Zerga Koordinazioko Organoa oso baliagarria izan zaio patronalari, berezkoak dituzten interesen alde jokatzeko. Sindikatuei parte hartzeko aukera ukatu zaien bitartean, etengabeko harremanak izan dituzte Confedebekin. Bizkaiko Ogasun ahalak opor fiskalei buruz esan zuen bezala “patronalak eskatu digun guztia egin dugu”.

ELArentzat zerga-arauen gaineko erabakiak Eusko Legebiltzarrean hartu behar dira, eta ez biltzar nagusietan. Gure herriko ideia politiko guztiak kontuan hartzen dituen legebiltzar batean. Osasuna, hezkuntza eta etxebizitza-politika lurralde bakoitzean hartzen diren erabakien menpe daude, eta horrek ez du zentzurik.

Azkenik, ELAk gauza bat utzi nahi du argi, urte askotatik hona egin izan dugun bezala guk arlo fiskaleko analisiak eta proposamenak egiten jarraituko dugu, giltzarritzat dugun kontu horretaz langileria eta gizarte osoa jabeazteko, eta eskudun erakundeei sistema fiskal zuzena eta solidarioa eskatzeko. Horrela bakarrik lortu ahal izango ditugu diru-sarrera nahikoak, Hego Euskal Herriko defizit sozial handiak estaltzeko behar bestekoak.

Hala eta guztiz ere, orain arteko erreforma fiskalak Zerga Koordinazioko Organoan proposatu eta ebatzi dira; eta Eusko Jaurlaritzaren eta foru-aldundien arteko organo parekidea denez, Eusko Jaurlaritzak zer esan handia dauka politika fiskalaren arloan.

Gainera, bai Estatutuak, bai Lurralde Historikoen Legeak, bai Ekonomia Itunak berak ere Eusko Legebiltzarrari aitortzen diote arlo fiskalean arautzeko aukera. Lege-xedapen horietan guztietan aipatzen da Autonomia Erkidegoko lurralde historikoek men egin behar dietela Eusko Legebiltzarraren koordinazio, harmonizazio eta lankidetzarako emango dituen arlo fiskaleko araei. Maiatzaren 30eko 3/89 Legean ez da mugatzen aplikagarritasuna; beraz argi dago Legebiltzarra eskuduna dela arlo horretan. Lege-mailako arauak emateko ahalmena legebiltzarrari dagokio oso-osorik, zeren biltzar nagusiek onesten dituztenak foru-arauak dira.

Orain arte ez dute borondate politikorik izan, tresna horretaz baliatzeko; ELAk horretarako oso egokia dela uste arren.